

GERO ETA ERABAKIGARRIAGOA ETA ERABAKITZAILEAGOA IZANGO DA EMAKUMEAREN PRESENTZIA



Emakumeak gizartean duen zeregina ikusaraztera eta aldarrikatzera begira Sabino Arana Fundaziotik bultzatzen ditugun askotariko ekimenen barruan, 2021ean “Emakumeak eta politika. Nola txertatu genero-ikuspegia politikan” izenburuko topaketa antolatu genuen. Bost alderdi politikotako bost emakumek parte hartu zuten, bakoitzak bere ideologiarekin, bakoitzak bere pentsamolderekin, baina denek helburu bakar batekin: emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea.

Azken hamarkadetan bide horretan nabarmen aurreraztea lortu den arren, emakumearen presentzia gero eta erabakigarriagoa baita taula sozio-politikoetan, asko geratzen zaigu egiteko, bide luzea geratzen zaigu ibiltzeko, amesten dugun berdintasun horretara irits gaitzen.

Egia ere bada politikaren esparrua oraindik oso maskulinoa dela, gero eta emakume gehiagok bide hori hartzea erabaki duten arren. Kontziliazioaren kontzeptua, gizonen artean, nabarmen hasi da indarra hartzen, baina oraindik guztiz eskasa da zainketak emakumeen eskuetan dardelako nagusiki. Horregatik, hauteskundeetarako zerrendak egiterako orduan, eurak dira, emakumeak, politikan parte hartze aktiboa izateari uko egiten diotenak.

Dena dela, konbentzituta nago Berdintasun Lege berriak lagunduko digula aukera berdintasunean aurrera egiten, berdintasuna biztanleriaren zatirik ahulenera irits dadin. Urteak daramatzagu aurrekontuak eta politika publikoak gauzatzen genero ikuspegiaren oinarrituta, eta bada garaia gauzak bide onetik eramaten ari garen ala ez ikusteko.

Euskadi aitzindari izan zen berdintasun politikei bultzada emateko orduan. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako legeak, Eusko Legebiltzarrak 2005ean onetsi zuenak, aurrerakada handia ekarri zuen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean. Lege hori aplikatzeari esker ezagutu ditugun aurrerapausoak ditugu eredu eta pizgarri, euskal herritar guztiok jarrai dezagun egiten benetako

berdintasunera iristeko egin beharko dugun bidea.

Halaber, guztiz ezinbestekoa da gazteek aurre egin diezaietela azken urteotako aldaketetatik sortu diren erronka eta aukera berriei, egoera global berria ekarri baitigute. Testuinguru honetan, beharrezko dugu estereotipo matxisten kontra borrokatzea, bai eta lan egiten jarraitzea gizakien arteko harremanek oinarri izan ditzaten berdintasun irizpideak, emakume guztien ahalduntzea lortuz.

Erakunde publikoek, gizartearen eskutik, betiere, berdintasun politika publikoak garatu eta indartu behar dituzte, ahalegin horri politika estrategikoak gehituz Hezkuntza eta Gazteriatik eta indarkeria sexistari aurre egiteko programaren barruan. Politika hauek sustatu behar dute emakume gazteen ahalduntzea, bai eta indartu ere desparekotasun eta indarkeria egoerei erantzuteko duten gaitasuna.

Aukera-, meritu- eta aitortza-berdintasunaren alde egitea dugu helburu, arlo guztietan, bereziki lan esparruan. Uste osoa dut emakumeen ahalduntzean, norbanakoaren ahalduntzean, bai eta kolektibo eta sozialean ere, ezinbestean autoestimua eta autonomiaren garapenaren bidez etorri beharko baita, emakumeen bizi baldintzak hobetzearen bidez eta parte hartze sozio-politikoaren areagotzearen bidez.



LA PRESENCIA DE LA MUJER ES CADA VEZ MÁS DETERMINANTE Y DECISORIA

En el marco de las diversas iniciativas que venimos impulsando desde Sabino Arana Fundazioa dentro de las actividades dirigidas a visibilizar y reivindicar el papel de la mujer en la sociedad, en 2021 organizamos un encuentro bajo el título “Mujeres y política. Cómo incorporar la perspectiva de género en la política”. Tomaron parte cinco mujeres de cinco partidos políticos diferentes, con ideologías y maneras de pensar distintas, pero con un objetivo común: conseguir la igualdad real entre hombres y mujeres.

Si bien es verdad que en las últimas décadas se ha avanzado considerablemente en este sentido y que la presencia de la mujer es cada vez más determinante en los diferentes escenarios socio-políticos, aún queda mucho camino por recorrer para lograr la anhelada igualdad.

También es una realidad que el mundo de la política continúa siendo muy masculino, aunque ahora haya en él más mujeres implicadas. La conciliación familiar en los hombres está avanzando significativamente, pero aún es insuficiente porque sigue recayendo principalmente en manos femeninas. Por eso a la hora de elaborar las listas electorales son ellas, en su mayoría, quienes renuncian a involucrarse activamente en la política.

No obstante, estoy convencida de que la nueva Ley de Igualdad servirá para avanzar en la equidad de oportunidades de la mitad desfavorecida de la población. Llevamos años con presupuestos y políticas públicas con perspectiva de género y ha llegado la hora de comprobar si estamos haciendo bien las cosas.

Euskadi fue pionera en el impulso de las políticas de igualdad. La Ley para la Igualdad de Hombres y Mujeres, aprobada por el Parlamento Vasco en 2005, supuso un avance importante en el camino hacia la igualdad de hombres y mujeres. Los avances logrados gracias a la aplicación de esta Ley constituyen un ejemplo y un estímulo para que todas y todos los vascos sigamos recorriendo el aún largo camino que nos separa de la igualdad real y efectiva.

Asimismo, es imprescindible que los y las jóvenes hagan frente a los nuevos retos y oportunidades surgidos de los procesos de cambio que se han venido sucediendo en los últimos años y que han configurado un nuevo escenario social. En este nuevo contexto es necesario luchar contra los estereotipos machistas y trabajar por conseguir que las relaciones humanas se desarrollen bajo criterios de igualdad, consiguiendo el empoderamiento de todas las mujeres.

Las instituciones públicas, de la mano de la sociedad, deben desarrollar y reforzar las políticas públicas de igualdad, procurando sumar fuerzas con políticas estratégicas también desde las áreas de Educación y Juventud y en el marco del programa de prevención de la violencia sexista. Estas políticas han de promover el empoderamiento de las jóvenes y fomentar su capacidad de respuesta ante situaciones de desigualdad y violencia.

Apostar por la igualdad de oportunidades, méritos y reconocimiento en todos los ámbitos, de un modo especial en el entorno laboral, es el objetivo. Creo firmemente en el empoderamiento de las mujeres, un empoderamiento que debe ser personal, colectivo y social, y que solo podrá llegar desde el desarrollo de su autoestima y autonomía, la mejora de sus condiciones de vida y el aumento de su participación socio-política.

MAIDER ALDASORO DIAZ.

Graduada en Bellas Artes por la UPV-EHU, incluyendo un Erasmus en Norwich University of the Arts en 2013. Máster en Investigación en Arte y Creación en la Universidad Complutense de Madrid. Durante 2018-2020 formó parte de un colectivo dedicado al arte, mediación y proyectos colaborativos junto con Ane Rodríguez Zaitegui. Juntas han trabajado para CA2M Madrid, el museo San Telmo de Donostia, Luzatu Gau Irekia de Sarean (Bilbao) y el ayuntamiento de Donostia.

Su práctica individual mezcla el video, el diseño de vestuario, la construcción de artilugios, la video-performance y la animación. Ha realizado residencias en Azkuna Zentroa/ Alhóndiga Bilbao dentro del marco Babestu, Apoyo a la creación (2020-2021) y Bilbaoarte (2022) y ha recibido las becas de producción del Gobierno Vasco (2021) y de Bilbaoarte (2021). En septiembre de 2021 tuvo una exposición individual en Azkuna Zentroa como culminación de su residencia en el centro.

